



**Ebazpena, 2020ko maiatzaren 11koa, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariarena, zeinaren bidez borondatezko adierazpena aurkezteko modua ezartzen duena, udal-titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastetxeei diru-laguntzak emateko prozeduraren jarraipenarekin bat etorritz. Prozedura hori Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez deitu zen, eta haren bidez udal-titulartasuneko musika-zentroei diru-laguntzak emateko deialdia egin zen. (2019ko abenduaren 10eko EHAA, asteartea).**

Udal titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastetxeei diru-laguntzak emateko deialdia Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez egin zen (EHAA, 2019ko abenduaren 10ekoa, asteartea), eta, 13. artikuluan, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariari esleitu zitzaion laguntza horien kudeaketa.

Emakida-prozedura izapidetzen ari denez, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoak (COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena) administrazio-epeak eten du, eta, beraz, egun horretan amaitu gabe zeuden epeak edo data horretatik aurrera hasi beharrekoak ezin dira amaitu. Beraz, ezinezkoa da izapidetzen ari den prozedura bat amaitzea, etete horrek prozeduran ezarritako eperen batean eragina izan badu.

Hala ere, prozedurak amaitu arte jarrai dezake, baldin eta, 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian berariaz jasotakoa aplikatuz, interesdunak adierazten badu ados dagoela epea ez etetearekin eta, beraz, prozedurak jarraitzearekin.

Jakina, prozedura amaitzeak, dagokion ebazpena emanda, aukera emango du ordainketak deialdian adierazitako moduan egiteko.

Ebazpen honen xedea da interesdunek 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian jasotako kasua gauzatzeko erraztasunak ematea, prozedurak aurrera egiteko baimena aurkeztuz.

Horregatik guztiagatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.** - Prozedura bat ezartzea, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez deitutako udal-titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastetxeentzako diru-laguntzen prozeduran (2019ko abenduaren 10eko EHAA, asteartea) eskabidea aurkeztu duten pertsonak ados egon daitezzen prozedura horretan epeak ez etetearekin eta ebazpena eman arte prozedura horrekin jarraitzearekin, laguntza onartzeko geroko izapideak eta Hitzarmena sinatzea Hezkuntza Sailaren eta diruz lagundutako eskolen eta kontserbatorioen titular diren udalen eta/edo mankomunitateen artean, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoarekin bat etorritz. Errege Dekretu horren bidez, alarma-egoera adierazten da COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.



**Bigarrena.-** Prozeduraren jarraipenean baimen hori adierazi nahi dutenek berariaz jakinarazi beharko diote Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, ondoren ageri den eranskina eredia betez eta beren espedientearen aplikazioaren bidez sartuz egin ahal izango dute.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/ebazpenak/>) eta Hezkuntza Sailaren webgunean (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>) argitaratzeko agintzea.

Argitalpenaren berri emango zaie interesdunei SMS edo posta elektronikoko bidez. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondoriorik izango, argitalpenarekin batera gertatzen dena.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 11

Eugenio Jiménez Ibáñez  
IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA



**ERANSKINA**  
**EPEA EZ ETETEAREN ALDEKO ADIERAZPENA**

.....zentroak (IFK:.....) udal titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastetxeei diru-laguntzak emateko prozeduran (Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez deitu zen prozedura hori (2019ko abenduaren 10eko EHAA, asteartea), 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritz.

ADIERAZI DU ADOS DAGOELA prozedura horren epeak ez etetearekin eta amaitu arte prozedurarekin jarraitzearekin.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren .....(e)an